

danbolli

2026 maiatza

282pk.



Fundizio
musika elkarte
Zestoako musikarien habia

Irao berri
pottokak

675 965 116 iraopottoka@gmail.com

Botika - Laborategia
ZURUTUZA

Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

Gestoria Zubia

M^o Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behe - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

MGS

Seguros y Reaseguros SA
Mila Aranguren

Tel.: 614 196 483
milagrosarangurenlarranaga@mgs.es

Ekain Berri
kafetegia

Ordutegia
Aste barruan 06:30/13:30
Asteburutan 06:30/14:30
Arratsaldez itxita

By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA

Merendi
943 147 657

CARAVAN PARK

GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK

www.caravan-park.net
ZESTOA TEL. 14 76 79

telef. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Zestoa

AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44

merendi
merendi@merendi.net
merendi@merendi.net

APRILA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10
11	12	13	14	15
16	17	18	19	20
21	22	23	24	25
26	27	28	29	30

MAIATZA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

EKAINA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Egun osoan irekita Mus tupeleketan 22:00etan Irekita 18:00etatik aurrera Itxita

UZTAPIDE
TABERNA

Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

AVA ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behe 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com

IRAETA JATETXEA

Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740

MI ZU
Hortz Klinika

mizuclicadental@gmail.com
ZURINE ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 797
IDIOIA ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 868 Telf.: 943 14 78 28

eskua
Therapy Group

Fisioterapia
Osteopatia

— 943 29 08 99 —
Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

Viran Zub
taberna

kutixi eta pentsuak

LAIAK
ZESTOA

www.laiakdenda.com
tfnoa: 943148134

laiak
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.

harresi

Tlf 943 323 894
Gurutzeaga kalea 11-13

Eizagirre
Okindegia

Tel: 943 090341

FOti
taberna

Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l. Itzulpenak baino askoz gehiago!

Bakun

Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus

UROLA
ITURGINTZA

665 49 07 73

KOIOOTE

foru plaza, 4
tel. 943 147 095

Aranburu

Landetxea eta jatetxea
943 148 005

AUZOLanean

Kondairak dio euskal usadioan barne-barneraino errotzen dela auzolana Euskal Herrian. Kontzeptu gisa munduan ez da eskusiboa, baina bai mendeetan zehar mantentzea lortu duen herri baten izaera definitzen duen zerbait. Egia da azken hamarkadetan galtzen ari dela, edo, behintzat, ez dela lehen zen bezain indartsua. Horrek ez du esan nahi, ordea, galduta edo galtzear dagoenik. Zestoa bezalako herri batean adibide ugari topatu ditzakegu. Aldizkari honetatik hasita, ale honetan aurkituko dituzuen hainbat gai.

Seguruenik guztietan berriena Amets Sarea izango da. 2025eko irailean hasi ziren lanean herriko hainbat eragile elkarturik, herrian azken urteetan egon diren aldaketekin kezkatuta. Gizartea azkar aldatu da, eta aldatzen ari da. Teknologia berrien kudeaketa, euskararen erabileraren beherakada edo kanpotik datozenen integrazioa hobetuz, umeen ongizatea zaindu nahi da Amets Sarearen bidez. Talde hau sortzeak ez du esan nahi orain arte ez denik ezer egin, baina taldean lan eginez emaitza hobea lor daiteke, eta, bakoitzak hobeto ezagutzen dituen eremuak besteei erakutsiz, gizarte hobea eraikitzen lagundu dezakegu. Esan daiteke tribuaren zaintza auzolana dela.

Maiatzaren 15ean Arroabeen egin zen eskola txikien antzerki topaketa ere auzolanaren erakusle izan daiteke. Bakoitzak erakutsi dezakegu gure berdintasunean desberdinak garela, edo desberdintasunean berdinak garela. Hau kakanahastea. Baina zuek ulertzen duzue zer esan nahi dudan. Edo ez. Auzo edo herri txikietako eskolek errealitate bat erakusten dutela uste da askotan, baina elkarrengandik oso desberdinak izan daitezke. Antzerkiaren bidez, elkar ezagutzeko aukera dugu, eta hiri handi batera joan gabe auzo batean edo herri batean bizi gaitezkeela erakutsi, begiratu nahi duen edonori.

Zestoa herri musikazalea da, eta horren erakusgarri dugu Fundizio Fest. Fundizio musika elkarteak auzolanean urtero antolatutako musika jaialdi honek herriko musika taldeei oholtzara igotzeko aukera ematen die. Estazio zaharreko lokalean elkartzen diren taldeek auzolanean lan egiten dute urtean zehar, ordutegiak erabakitzeko, lokala hobetzeko edo jaialdia antolatzeko, urteetako usadioari jarraituz. Gero eta talde gehiago dago herrian, eta guztientzat dago lekua estazio zaharrean. Nahikoa duzue taldeko norbaitekin hitz egitea edo hara joatea. Ziur egon beren esku dagoen guztian lagunduko dizuetela.

urko cançeco



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRIZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazalea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIRA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATUSGANI, PERU GARTZIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO, OHIANA CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOETXEA
Kolaborabazale/auzenbazale taldea: NAGORE TELLERIA, JON ARTANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL LIZARRALDE
Disenua eta markezak:

ENEKO ARISTI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordaitua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



SALTAKAKO LEHEN URRATSAK

Zuk esaten duzun bezala, Jone, gure etxean ere presente izan da kirola betidanik. Sanjoseetako herri lasterketan, senarra antolakuntzan ibiltzen zen, eta alabak eta ni urtero atera izan gara saltaka. Galdetzen didazu ea nola izan zen nire lehen hartu-eman atletismoarekin.

Gaztetan, tarteka mendira joaten ginen lagun kuadrillarekin. Hori zen gure kirola. Berrogei urteak hurreratzeko ari zirela eta alabak koskortzen hasi zirenean, gimnasia hasi nintzen, kiroldegian, Antxelmo Astiazararekin. Garai hartan, oso emakume gutxi egiten zuen kirola, eta herrian ez zen gure belaunaldiko emakume korrikalaririk. Sanjoseetako lasterketa hurreratzeko ari zela, animatu egin gintuzten parte hartzera: 26 bat emakume atera ginen senior mailan (gordeta daukat zerrenda). Galtza motzetan jartzeak ere lotsa ematen zigun. XII. lasterketa zen, orain dela 34 urte, eta bukatu genuenean, egundoko emozioa sentitu genuen.



Handik aurrera, Luisa Pérezek eta biok jarraitu genuen entrenatzen. Futbol zelai zaharrean egiten genituen gure lehen saioak, Iñaki Irureta eta nire senarra gidari genituela.

1993an, Iñakik proposatu zigun Luisari eta bioi Atletismoko Espainiako Txapelketan parte hartzeko, pistan. Hirurok joan ginen. Harrezkero, hainbatetan izan gara bai Espainiako txapelketetan bai mundukoetan (Lyonen, besteak beste). Pistaz gain, herri lasterketak eta krosa ere egiten genituen, eta senarrak esaten zidan “munduko onenak” ginela, hiru modalitateak egiten genituelako. Bestalde, hamaika txoko ezagutu genituen lasterketak aitzakia hartuta. Eta, jakina, lagun asko ere egin genituen, toki askotakoak. Oraindik ere jarraitzen dugu harremanetan, hango eta hemengo beteranoekin.

Gaur egun, zale asko ikusten da bazterretan korrika; haurrak, gazteak, helduak. Herrian ere bai. Orain dela bizpahiru urte, sanjoseetako krosean hain zuzen, gazte bat hurreratu zitzaidan Bentapeligronean, alai eta berritsu, eta bidelagun izan nuen zati batean. Ez da ohikoa gazteak halako aldarte onean hurreratzeko, eta beretan eskertu nion: Asier Zulaika, ikusi izan zaitut gaztetxoak entrenatzen, eta, beraz, nola ikusten duzu Zestoako atletismoaren etorkizuna?

arantxa zigaran

entzidoa

pintada.

ATZERAKADA GELDITZEKO URGENTZIAZKO 10 NEURRI Euskararen larritasun egoerari aurre egiteko eta arnasmuneei eusteko ezinbestekoak diren urgentziko 10 neurri proposatu ditu Uemak. Administrazio publikoek udalerrri euskaldunetan epe motzean hartzeko modukoak, eta arnasmuneei eusteko ezinbestekoak. Neurri horiek euskararen indarberritzean eragingo dute, eta udalerrri ez hain euskaldunei egin beharreko bidea erakusteko ere balio dezakete.

Proposatutako neurrien artean daude euskarazko hizkuntza paisaia bermatzeko betebeharrak; helduen euskalduntzean ratioak jaitea eta doakotasuna ezartzea; haur eta gaztetxoentzako murgiltze ereduak indartzea; eta udal langile guztien euskalduntzea zein udalen euskarazko funtzionamendua bermatzeko neurri juridikoak.

Otsailean Lurralde Estrategia Euskararentzat proposamena aurkeztu zuen UEMAK, hizkuntza politikari beste norabide bat eman nahian. Euskararentzat Lurralde estrategia berri bat aurkeztuta lege proposamena garatzeko adostasunak bilatzen dihardu Uemak, bitarterako baina urgentziaz hartu beharreko neurriak.

UEMA udalerrri euskaldunen mankomunitatea

GAUZEK BALIO DUTENA

Zaintzen hasiak gara erabat; bueno, gorputzaren azalari dagokionean behintzat. Eguneroko errutinak ezinbesteko ditugu, batez ere kosmetika-produktu eta elikadura-osagarri hartzen ditugun pilula eta bestelako horiei dagokienean. Hori saldu digute sare sozialetako erreferente edo aditu izeneko batzuek, eta, ondorioz, produktu berri eta "naturalak" erosten soldataren pusketa bat inbertitzea erabat logikoa egiten zaigu, are gehiago, beharrezkoa.

Egunerokotasuneko oinarritzko errutinez, ordea, badirudi ahaztu egin garela, alegia, bizitzeko eta ondo bizitzeko errutinez: jateaz eta, batez ere, elikatzeaz, loaz, moda hutsaz harago kalitatezko ohalez gorputza estaltzeaz... Benetako aditu denak esan diezazuke osasuntsu izango bagara, ezinbestekoa dela, lehendabizi oinarritzko alderdi horiei heltzea, gorputzari kimiko larregi ematen hasi aurretik, baina ez du pisu bera hark esandakoak. Ondo bizitzeko errutina hauei dagokienean hasten zaigu benetako "aurrezteko" jokia; izan ere, kasu honetan ez dugu inbertitzen, gastatu baizik, eta azkenaldian tamalez asko gainera.

Jakin badakigu azken hamarkadan, eta mende laurdenean, asko garestitu dela oro har bizitzea, badakigu, baita ere, soldatek ez dutela eboluzio bera izan, eta ondorioz kasu askotan bizirauteko ahalik eta gastu gutxien egin beharrean garela. Nolanahi ere, gustatuko litzaidake jakitea zergatik, behin gastatzen hasita, gauza batzuk garesti diruditen eta beste batzuk aldiz beharrezko; zergatik diru berak ez duen balio berdina zertan gastatu edo inbertitu erabakitzean. Bertako sortzaile edo lehen sektoreko familia horri, geuretzako ere onuragarria den produktu horien-gatik, dagokiona ordaintzea gehiegizkoa iruditzen zaigu; herriko dendetan erosketak egitea ere garesti iruditzen zaigu sarritan, nahiz eta alboko herrira mugitzeko gasolinetan dirua joan; edo auzoa bizirik mantentzen duen komertzioan baino zertxobait merkeago dagoelako, produktu bera online erosita garaile sentitzen gara.

Jarrai nezake, baina ez nizuke ezer berririk azalduko lehen sektorearen edo tokiko komertzio eta sortzaileen penak hona ekarrita. Kontuak kontu, esango nuke testuinguru honetan, kontzienteki eta egiaz geure burua zaintzen hasiko bagara moda ttarrak alboratu eta zenbait ohitura berreskuratu beharrean garela.



MOXILA BETE BIZIPEN

Maratoia ez da soilik lasterketa bat; bizipen ugari eman dizkidan zerbait da niretzat. 42,195 kilometroak ez dira hasten lasterketa egunean, hilabete batzuk lehenago, goiz euritsuetan, goizeko 6etan lanetik aterata, gogo gutxi dagoenean... hori izaten da, askotan, benetako maratoia!

Nire burua hobeto eza-gutzeko balio izan dit, argi utziz muga gehienak buruan daudela eta pausoz pauso etsi gabe jarraitzeak bere emaitzak ematen dituela. Ondo gogoan dut, adibidez, 2013an Donostian egin nuen nire lehen maratoia. Irteeran nabari ziren urduritasuna, ezinegona eta inguruko korrikalarien ilusio eta arnas-hotsak. Erraz ahaztuko ez dudan oroitzapena da.



Baina maratoiak badu kilometro esanguratsu bat ere korrikalari gehienontzat: 30. kilometroa. "Horma" deitzen dioten hori. Hortik aurrera indarrak amaitzen doazen heinean, bihotzak hartzen du txanda. Valentziako maratoi ospetsuan parte hartu aurretik irakurri nuenak ondo deskribatzen du sentipen hori. Halako zer edo zer zioen: "30. kilometrorra arte hankekin egiten da korrika, ondorengo 10 kilometroetan buruarekin, azken 2 kilometroetan bihotzarekin, eta amaitzeko falta diren 195 metroan, begiak malkoz josita".

Eztanda bat da helmuga zeharkatzea. Lehertzen dira sentimendu guztiak, malkoak, irribarrea, amorrua... Bide gogorraren ondoren ematen digun bizipoza, azken finean. Eta hori dena ezin, neurri handi batean, errepede ondoetan izaten ditugun ikusle, lagun zein familiartekoen oihu eta animorik gabe.

Askok esaten digute: "merezi al du, helmugan sartzean bizitako poza sentituta ere, aurretik pasatako sufrimendu guztiak?". Sufrimendua lagunekin hobeto eramaten dela erantzuten diet. Zenbat maratoi eta prestaketa korrikako lagunekin bizitako abenturaz beteta... Maletak ilusioz eta zapatilaz bete eta joan gara Amsterdam, Dublin edo Municheko asfaltoetan gure aztarna uztera.

Bidaia bakoitza opari bat izan da: leku berriak ezagutzea, lagunartean gozatzea, hurrengo erronkarekin amesten hastea... Maratoiak gogorak izaten dira, bai, baina, lagunartean eginda, oroitzapen horiek betiko geratzen dira bihotzean. Mutilak, motxila bizipenez eta maratoiz betetzen jarraitu beharko diagu, ezta? Pedro Cabanillas jauna, Don Benitora, agian?



HERRI MUSIKAZALEA DA ZESTOA. BAI GARAIOTAN, BAI DUELA HAMAR URTE ERE, ETA ZER ESANIK EZ DUELA HOGEITA HAMAR. URTEAK JOAN ETA URTEAK ETORRI, DOZENAKA TALDE SORTU DIRA HERRIAN.

GAUR EGUN, TREN GELTOKI ZAHARREKO BILTEGIAN DAGO MUSIKA TALDEEK ENTSEGUETARAKO ERABILTZEN DUTEN LOKALA. BAINA GUNE HORI LORTU AURRETIK, HAN ETA HEMEN IBILI ZIREN MUSIKARIAK 90EKO HAMARKADAN. 2019 INGURUAN, GELTOKI ZAHARREKO LOKALAREN ERABILTZAILEEK, GUNE HORI KUDEATZEKO, FUNDIZIO MUSIKA ELKARTEA SORTU ZUTEN. ORDUTIK, LOKALAREN HOBEKUNTZAN EZ EZIK, ZESTOAKO MUSIKA SUSTATZEKO LANEAN ERE DIHARDUTE. HORREN GUZTIAREN NONDIK NORAKOAK GERTUTIK EZAGUTZEKO, IBON TELLERIA ETA JONE EXPOSITO FUNDIZIOKO KIDEEKIN BILDU GARA.

Abere hiltegia, entseatzeko leku

Entseatzeko leku gisa geltoki zaharreko lokala erabiltzearen zergatia jakiteko, 90eko hamarkadaren hasierako urteetara salto egin behar dugu. 1990ean, hain zuen, herriko hainbat musika talde elkartu eta Eusko Trenbidearena zen geltoki zaharra entseguetarako erabiltzeko nahia azaldu zuten. Horretarako, udalari eskatu zioten enpresa harekin gestioak egiteko. Eusko Trenbideak, ordea, Eusko Jaurlaritzarengana jotzeko esan zuen. Eusko Jaurlaritzarengana joan eta hark, berriz, ezetz.

Bi urtera, haren erantzunaren zain egon gabe, udalak geltokia zenbait ekipamendurekin hornitu zuen, hala nola, bozgorailu, gitarra-anplifikadore eta nahasketarako mahaiarekin. 1993an, ordea, geltokia AEKren barnetegi izateko egokitu zen, eta musika taldeek industrialdean bertan zegoen abere-hiltegi izandakora joan behar izan zuten.

Fernando Arzallusek gogoan du leku xeble hura. Berak idatzitako Az-tarka batean honela dio: "Garai haietan handik pasa ginenok irudi bitxi zein surrealista ikusi ahal izan genuen: abereak zintzilikatzeako kakoak, kateak eta poleak hantxe zeuden, hiltegia funtzionamenduan zegoenean bezala, musikari haietako bat jainkotiar bihurtu eta "deus ex machina" gisa, zeruan zintzilikatu behar bazen-edo".

Besteak beste, Lin Ton Taun, Se está kemando la Serrería edota Eremuan taldeek entseatu zuten abere-hiltegi hartan. Hurrengo hamarkadetan sortuko ziren gainontzeko denei bidea ireki zietenak, hain justu. Lin Ton Tauneko kidea den Joseba Illarramendik bizirik gordetzen ditu garai hartako oroitzapenak. 90eko hamarkadan hainbat entsegu lekutatik pa-

musikarien

satu zen taldea: Elizkaleko gaztetxe zaharra, Zentroa, *Hermanotako* jangela... eta mataderia, noski.

“Bi solairuko eraikina zen, eta beheko solairua gunekarratu handi bat. Paretak azulejo zuriz estalita zeuden, eta lurtean likidoentzako (odolarentzat, batik bat) kanalak zeuden. Soinua penagarri entzuten zen; horregatik, paretak espuma zuriz estali eta tela beltzak jarri genituen”, gogoratu du Illarramendik.

Egoera eskasean egonda ere, Lin Ton Taunek bertan sortu zituen maketa, lehen bi diskoak eta hirugarren lanaren zati handi bat. Handik urte batzuetara, estazioko industrialdean berritze-lanak hasi ziren eta hiltegi zaharra eraitsi egin zuten. Geltokiko biltegiara, gaur egun dabil-tzan lekura, pasa ziren orduan.

Geltoki zaharreko lokalaren hastapenak

Ibon Telleria hasiera-hasieratik dabil “beheko lokala” izenez ezagutzen den geltoki zaharreko lokalean. Duela hiru hamarkadako kontuez jardun gara hizketan. Hasiera batean, lokalaren egoera kaskarrak behartuta, inguruko obretatik utzi zizkieten materialekin konpondu zuten lokalaren kanpoaldea, adreiluak, masa eta bestelakoak erabiliz. Leihoak, berriz, *Páginas Amarillas* liburuekin estali zituzten; oraindik han daude, paretari itsatsita.

Urte haietan gunek horren bueltan beste “rollito” bat zegoela uste du Telleriak: “geltokira jaitsi, bakoitzak instrumentu bat hartu eta, besterik gabe, inprobisatu egiten genuen, gozamenagatik”. Hori galdu egin dela dio. Dozenaka eta dozenaka musikari pasa dira beheko lokaletik. “Herrian ezagutzen diren talde gehienak lokal horretatik pasa dira” azaldu du Telleriak. Beste batzuek, jakina, beren lokal pribatuak zituzten. Batemat, Katekisis, Ihesi, Komando Telebista, Azido, Itzain, Hilobitik dira geltoki zaharreko biltegian entseatzeko zutenen orduko taldeen izenak. Azido taldeko partaide zen, hain justu, Ibon Telleria. Taldearen lehen urratsak gogoratzean irribarrea atera zaio: “Oraingo frontoi zaharraren aurrean zegoen Gaztañaga dendako sukaldean hasi ginen entseatzeko”.

Telleriaren eta Illarramendiren hitzak entzunda, argi dago garai hartako musikariek ez zutela aitzakiarik musika praktikatzeari uzteko.

Fundizio musika elkartearen sorrera

Azaldu berri dugun bezala, aspaldikoa da musika taldeek entseguetarako baliatzen duten lokala, baina 2019aren bueltan hasi ziren musikariak lokala asanblada bidez kudeatzen. Fundizio musika elkartearen izenpean, kultur talde eragile gisa definitzen dira.

Lokala kudeatzeko eta antolatzearen helburuarekin sortu zen elkartearen baina baita erabiltzaileek toki horrekiko konpromisoa hartzeko ere. Halaber, “herriko musika taldeen sormena eta musikarako grina hauspotzea nahiz talde berrien sorrera sustatzea” dela beraien asmoa, azaldu dute Telleriak eta Expositok.

Era berean, kultur eragile gisa, ekitaldi desberdinak antolatzearen ideia ere badute. Horren adibide da Fundizio Fest musika jaialdia. “Erraza da kultur talde garelako esatea, baina horretarako gauzak egin behar dira”, azaldu du Telleriak. Lokalaren erabilerari dagokionez, sarri entseatzeko dutenek lokala erabiltzeko ordutegi finko bat dute. Noizbehinkakoek, berriz, libre dagoen orduetan erabiltzen dute. Nolanahi ere, elkarren arteko komunikazioa “funtsezkotzat” jotzen dute. “Komunikazio faltagatik edo antolakuntza ezagatik, egoerak gain hartzen zuen lehen” aitortu du Telleriak. Hileko azken igandeetan elkartzen dira elkarteko kideak eta hitzordu hori lokalaren antolakuntzaz nahiz bestelako gaien inguruan hitz egiteko baliatzen dute.

Elkarlana eta elkarbizitza

Hogeita hamar lagun inguru dira gaur-gaurkoz geltoki zaharreko lokala erabiltzen dutenak. Horien artean, musika estilo desberdinak praktikatzeko dituzten talde, DJ nahiz bestelako sortzaileak daude. Exposito eta Telleriak aipatu dute pixkanaka kide berriak batzen ari direla, eta azpimarratu dute gogoan dutenentzat Fundizio atea zabalik dauzkala. “Lokala erabili nahi duen edozein herritarri baliabideak eta behar duen laguntza eskainiko diegu”. Hala eta guztiz ere, gunek hori erabiltzerako orduan konpromisoa hartzea eskatzen dute: batzarretan parte hartzea, auzolanetan laguntzea eta ekitaldien antolakuntzan inplikatzeko.



Historikoki bai lokalean, baita musika munduan ere, mutilak nagusi izan direla aipatu dute biek ala biek. Eta gaur egun ere hala dela, nahiz eta emakumeen presentzia hazten ari den elkartearen ere. Pozik agertu dira horrekin. Bide batez, herriko neskei elkarteara batzeko dei berezia zabaldu die.

Jone Exposito izan da elkartearen sartu den azkenetakoa. Hiru lagun elkartu ziren musika sortzeko irrikaz, norabidea oso argi izan gabe. Oso eskertuta agertu da Exposito Fundiziokoekin: “eskuzabalik hartu gintuzten eta laguntzeko prest agertu dira hasieratik. Instrumentuak ere utzi zizkiguten”.

Berdina dio Oier Arantzetak ere. Lagun talde bat bildu ziren gaztetxeko musika-bertsioen gauean parte-hartzeko asmotan. Egun horretarako entseatzeko beharra zutela ikusita, informatzen hasi ziren: “jakin bagenekien geltoki zaharrea entseatzeko lokal bat zegoela, baina ez zein zen funtzionamendua”. Expositok aipatu bezala, berriak ere hasiera batetik entseatzeko ia material guztia utzi zioten. Behin bertsioen gauean jo ondoren, musikarako grina piztu zitzaion eta Manitu taldea sortu zuten.

Momentu horretan lokalaren funtzionamenduan muturra sartu behar zutela ikusi zuten eta elkartearen sartu ziren. Entsegetarako gunea izateaz harago, Manituko baxu-joleak elkartearen kideen arteko elkarlana nabarmendu du:

“Kontzertuak lotzeko garaian, instrumentuen inguruko zalantzak argitzea, faktorekin edo teknikoekin harremanak kudeatzeko... era askotako laguntza dago gure artean”.

“Elkartekook elkarri laguntzen ez badiogu, ez gaitu inork lagunduko; eta are gutxiago hasi berriak diren taldeak”, gaineratu du.

Bigarren lokala

Geltoki zaharretako lokalak ate bana du alde bakoitzean. Hori horrela, eraikinak bi lokal ditu: bata txikiagoa bestea baino. Azken hiru hamarkadetan, herriko musika taldeek txikiena erabili dute. Hala ere, erabiltzaile kopurua handitu ahala, gunea txiki geratzen hasi zitzaion, bai ekipamendu guztia sartzeko eta bai entsegetarako behar adinako lekua bermatzeko ere. Horregatik, aspalditik zebiltzan Fundizioko kideak bigarren lokala eskuratzeko ahaleginetan. Gune hori, ordura arte, udalak erabiltzen zuen biltegi moduan.

2023an udalarekin hitzarmena sinatu zuten eta laguntza ekonomikoa jaso zuten lokala auzolanean egokitzen laguntzeko. 2024 amaieran eskuratu zuten gune hori, eta duela bi hilabetetatik martxan dago jada.

Gune hori konpondu eta erabilgarri jarri dute denbora horretan Fundiziokoekin elkarlanean: intsonorizatu, telak jarri, lurra jarri... Bi lokal izateak aldi berean bi espazioetan entseatzeko ahalbidetzen duenez, aurrerapauso handia dela diote elkarriketatuek. Gune berria, batez ere, jardun handiagoa duten taldeek erabiltzen dute, maizago entseatzeko dutenek eta oholtzara sarriago igotzen direnek. Beste lokala, berriz, DJ-ek, talde txikiagoek eta noizean behin

**“MUSIKA ESTILO
DESBERDINAK
PRAKTIKATZEN
DITUZTEN TALDE,
DJ NAHIZ
BESTELAKO
SORTZAILEAK
DAUDE”**



elkartzen direnek erabiltzen dute gehienbat. Elkarrizketaren bitartean, gune berria erakusten ari zitzaizkidala, txoko batean tresna bitxi batek arreta erakarri zidan: tren geltokia martxan zegoen garaiko pisatzeko baskula zahar bat zen. Telleriak azaldu zidan haren funtzionamendua, baina, egia esan, kostata uler-tu nuen; makina hark nire adina baino lau aldiz urte gehiago baitzuen. Udalak objektu historiko gisa mantendu nahi izan du bertan. Fundiziook, ordea, dohaintzan ematea nahi omen zuten, “hor hautsa pila-tzen egotea baino lehen”. Txantxetan, Telleriak eta Expositok esan dute askotan aipatu izan dutela norbaitek, entsegu sutsuren batean edo momentuko adrenalina lehertze betean, moztuko ote duen delako baskula lurretik.

Zestoako musikaren egoeraz, baikor

Zestoako panorama musikala “osasuntsu” ikusten dute Exposito eta Telleriak, eta horren adierazle da musikarien lokalean gero eta talde gehiagok entseatzen dutela. Expositoren ustez, “Zestoan beti dago musikaren munduarekin lotuta dabilen jendea. Talde batean ez bada bestean, baina beti bada mugimendua. Horrek herriko musika-grina bizirik mantentzen laguntzen du, eta gazteek erreferenteak izatea ere oso garrantzitsua da mundu honetan sartzeko”, azaldu du.

Telleriak, berriz, aniztasuna nabarmendu du egungo panoramaren indargune gisa. Haren esanetan, aurreko hamarkadetan baino musika estilo gehiago lantzen dira gaur egun, eta, gainera, belaunaldi desberdinetako jendea elkartzen da gune berean. Horrek harremanak sendotzea eta elkarrengandik ikastea ahalbidetzen duela uste du.

Fundizio Fest, herriko musikagileen eszenatoki

Maiatzaren 23an ospatu zen Fundizio Fest. Aurten hirugarrenez antolatu dute musika jaialdia, Zestoako Gazte Asanbladarekin elkar-lanean. Lehenengo aldiz 2021ean antolatu zuten, eta 2022ko edizioaren ondoren etenaldia izan du, aurten berriz itzuli arte. Fundizio musika elkarteko parte diren musikariei aukera emateko eguna dela azaldu dute. Jaialdiaren berezitasun nagusia “herriko taldeei ematen dieten lehentasuna” da, baita haien presentzia eta ikusgarritasuna sustatzea ere.

“Oholtza anitzak” izatean ere jarri dute fokua aurten, azaldu du Expositok. Programazioan emakumeen presentzia ere bilatu dute, baina argi utzi nahi izan du hautaketa ez dela horretan bakarrik oinarritu: “Ez ditugu taldeak aukeratu bertan emakumeak daudelako; gustuko ditugulako baizik, eta gainera emakumeak ere badaudelako”.

Goizetik goizaldera arteko egitaraua izan zuen Fundizio Festek. Goizean, herritarrek entsegu lokal berria bisitatzeko aukera izan zuten; eguerdian, berriz, Laiak dendak antolatutako ardo dastaketak hartu zuen protagonismoa. Arratsaldetik aurrera, kontzertuek bete zituzten gaztetxea eta plaza: Arima, Mihise, Argizulo Dub Station & Eira, Beñaranks, Fundizio Crew, Min, Burutik eta, azkenik, Hgs, Costmix eta 3re DJ-ak arduratu ziren askotariko doinuekin herria girotzeaz.



oihane goikoetxea



HAURREN ONGIZATEA BULTZATZEKO, AMETS SAREA TALDEA SORTU DUTE HERRIKO HAINBAT ERAKUNDE, ERAGILE ETA NORBANAKOK

AMETS SAREA TALDEA SORTU IZANAK EZ DU ESAN NAHI HERRIAN UME ETA NERABEEN ONGIZATEAREN ALDE INOR LANEAN EZ DENIK ARI, EZTA GUTXIAGORIK ERE. BATZUK PANTAILEN ERABILERA GEHIEGIZKOAREKIN KEZKATUTA DAUDE, BESTE BATZUK ARDURATUTA DAUDE UMEAK KALEAN GAZTELANIAZ ARI DIRELAKO, ETA BESTE BATZUENTZAT HAURREN KONTZENTRAZIO-AHALMENA GERO ETA AHULAGOA IZATEA DA BURUHAUSTEA. AMETS SAREAREN HELBURUA INDARRAK BATU, ETA IPAR BERA ADOSTUTA, ELKARREKIN LAN EGITEA DA. EGITASMOA 0-6 URTE ARTEKO HAURRENTZAT ETA HAIEN GURASOENTZAT DA. ASMO NAGUSIA DA HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN DITUZTEN ARAZOEI AURREA HARTZEA, ETA HORRETARAKO PREBENTZIO LANA EGITEA.

NORK ABIATU DU EGITASMOA?

Zestoako Udala da egitasmoaren dinamizatzailea, eta berak jarriko ditu baliabideak. Udaletik sortutako egitasmoa izan arren, taldeko kideen ardura da norabidea zehaztea, edukiz betetzea eta erabakiak hartzea. Taldean, herriko hainbat erakunde, eragile eta norbanako ari dira lanean. Gidaritza lanak errazte aldera, diputazioari dirulaguntza eskatu dio udalak, eta, horri esker, Hezten elkarteko kide bat kontratatu dute (aisialdi hezitzaile eta euskaltzalea eskaintzen du talde horrek).

ZERGATIK SORTU DA AMETS SAREA?

Taldekiek Danbolini adierazi diote haur eta nerabeen bueltako hainbat arlotan kezka berak sumatzen hasiak zirela. Eskoletan, osasungintzan, gurasoen inguruan eta aisialdiko edo hezkuntza ez formaleko espazioetan zenbait joera kezkarri ari ziren ikusten azken urteetan. Honela zerrendatu dituzte nagusienak:

Taldeak 23 kide ditu. Batzuk argazkian ageri dira. Nohelia Coila Pacheco (herritarra), Itsaso Zubiria Etxeberria (liburuzaina), Nerea Linazasoro Lazkano (Ekain Guraso Elkartea), Eztizen Ituarte Lertxundi (Herri Ikastetxea), Oier Eizagirre (Aizarnako eskola), Esther Eizagirre (Arroako eskola), Leire Etxeberria Lizarralde (Zestoako haur-eskola), Janire Etxebarri Mendia (anbulatorioko pediatra), Irati Otaño Aizarna (Ahurra Guraso Elkartea), Ane Egaña (Sakulupe Guraso Elkartea), Esti Zabala (Euskara Foroa), Olatz Bereziartua Aizpuru (Zaintza Sarea), Leire Unanue (Kalexka), Itxaso Marti (herritarra eta pediatra), Shamaila Fiaz (herritarra eta gurasoa), Gurutze Lopetegui (herritarra eta gizarte hezitzailea), Leire Otaegi Labaka (udaleko gazteria teknikaria), Anabela Odriozola (udaleko gizarte langilea), Naroa Otaegi (udaleko gizarte langilea), Nora Palmitano (udaleko euskara teknikaria), Onintza Irureta Azkune (herritarra-itzulpenak), Nerea Goikoetxea (udaleko zinegotzia), Lorea Ilundain (udaleko zinegotzia), Ainhoa Pinedo Etxeberria (Hezten-dinamizatzailea)



-Haurren artean euskararen erabileraren jaitsiera nabarmena.
-Mugikorren eta sare sozialen erabilera okerrak haur eta nerabeengan duen eragin kaltegarria. Horrekin batera, aisialdi eta gizarte ereduaren inguruko kezka.
-Haurren artean, “bertakoak” eta “kanpokoak” elkarrekin egoteko, jolasteko, harremanak izateko dauden errezeloak, kontraktasunak...
Taldekideek diote inklusio eza geroz eta nabarmenagoa ari dela izaten eskolan eta herrian haur, nerabe eta helduengan.
-Azken urteetan haur eta nerabeen osasun mentalak okerrera egin izana.
-Herri gisa “gauzak gaizki egiten ari garensentsazio orokorra, atzetik goazen sentsazioa, edo, beharbada, atzerantz goazen sentsazioa...”.

ZEIN DA HELBURUA?

Haur eta nerabeen ongizatea bermatzea da helburua. Arazoak eta gabeziak gutxitzea da asmoa, eta, horretarako, prebentzio lana egitea hobetsi dute. Horregatik, 0 eta 6 urte arteko umeentzat egingo dute lan, baita haien gurasoentzat ere. Taldeak gogoeta eta ekintzak, bi ildoak, jorratuko ditu. Haurrentzat lanean ari den herriko eragile bakoitza bere aldetik aritu beharrean, asmoa da Amets Sarearen bidez koordinatzea eta egitasmo globalaren norabidea elkarrekin adostea. Onuradun zuzenak umeak eta gurasoak izango dira, baina, taldekideek Danbolini adierazi diotenez, “herri osoaren ongizatean eragin nahi genuke, eta herria saretzen joatea nahiko genuke”. Gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraiki nahi dute.

NOIZTIK ARI DIRA LANEAN?

2025eko irailean hasi ziren lanean. Bilerak hilero egiten dituzte. Hilabete hauetan, hiru lanetan aritu dira: lehenik eta behin, herrian dauden baliabide eta zerbitzuak zerrendatu dituzte; bigarrenik, saiatu dira adosten taldearen helburua nola ulertzen duten, alegia, ‘haurtzaroaren garapen osasuntsua’ esanda zer ulertzen den. Hirugarrenik, taldearen funtzioez eta bakoitzaren konpromiso mailaz jardun dute.

ZEIN LANTALDE SORTU DITUZTE?

Irailaz geroztik egindako bileretan, haurren garapena egokia izateko nahitaezkoak diren gaien zerrenda luzea atera zaie: herri kohesioa, euskara, familiak, jolasak, irakurtzearen garrantzia, sozializazioa, estimulazioa, pantailak, elikadura, emozioak, herriko agenda bateratua, eta abar. Gai bakoitzarekin lantalde berezitu bat sortu ezin denez, gaiok zeharlerroan landu ahal izateko bi lantalde sortzea adostu dute. Lantalde batek harrera jorratuko du, eta besteak guraso eskola. Bilera guztiak euskaraz egiten dira, eta, atzerritar jatorria dutenak parte hartu ahal izateko, herritar batek xuxurlari lanak egiten ditu.

ZEIN ASMO DITUZTE ‘HARRERA’ ETA ‘GURASO ESKOLA’ LANTALDEEK?

Harrera lantaldea herritar etorri berriei nolako harrera egiten zaien aztertzen ari da. Hainbat herritarrek, beren modura, nolabaiteko harrera egiten diete etorri berriei. Dena den, lantalde honen asmoa da herri harrera integral bat martxan jartzea. Horretarako, udal teknikariek landutako “Baliabideen gida” izango da abiapuntua. Etorri berriei herriari buruzko informazioa paperean eskura ematea nahikoa ez dela iritzita, herritarrongana iristeko beste modu batzuk aztertuko dituzte.

Guraso eskolak ekainaren 11n antolatuko du lehenengo ekintza: “Azalera ipuinak”. 0-2 urte arteko haurrentzat eta haien familientzat izango da. Izen-ematea maiatzaren 25etik ekainaren 5era arte izango da. Horrez gain, datorren ikasturtean, bi hilean behin, “osasun eskola” antolatuko dute, gurasoei kezka pizten dieten gaiez hitz egiteko kafe-tertuliak. Bestalde, aztertzen ari dira gurasoentzako euskara klaseak martxan jartzeko aukera. Haurrak eskolan dauden bitartean izango liriteke, ikastetxean bertan.

PARTE-HARTZAILEAK

Herriko hiru ikastetxeetako, hiru guraso elkarteetako eta haur-eskolako ordezkariak daude taldean. Gainera, udaleko bederatzi ordezkari daude, teknikariak eta zinegotziak. Osakidetzako herriko pediatra ere bai. Horietaz gain, Euskara Foroko kideak eta hainbat herritar ari dira parte hartzen. Bileretan, herritar batek itzultzaile lanak egiten ditu euskara ulertzen ez duten parte-hartzaileentzat. Bilerak dinamizatzen, berriz, Hezten elkarteko dinamizatzaile bat aritzen da. Guztira 23 pertsona daude taldean.

onintza irureta azkune



"EUSKARAREN LORAILA" EGITASMOA

Maiatzean zehar askotariko ekitaldiak egin dituzte Euskararen Loraila egitasmoaren baitan. Zestoako Udalak eta Euskara Foroak elkarlanean antolatu dute egitasmoa, euskara erdigunean jartzeko, eta, bide batez, herritarrek gaur egun euskara bizitzen ari den egoeraz hausnartzeko.

Frankopoleon antzezlanak eman zion hasiera egitarauari. Oholtzara igo ziren aktoreen artean Inma Izeta herritarra izan zen. Euskal Herrian Euskaraz elkarteak eskainitako hitzaldia izan zen bigarren hitzordua. Ondoren, euskararen, islamofobiaren eta feminismoaren aurkako gorroto diskurtsoak izan zituzten hizpide Alonderon. Egitarauari amaiera emateko, UEMak Esnatu gure hizkuntzak har dezan arnas kanpaina aurkeztu zuen Alonderon.



MUSIKAK ELKARTU DITU BERRIZ ERE ZESTOA ETA ELIZONDO

Zestoako eta Elizondoko (Nafarroa) musika bandek elkartrukeko kontzertua eskaini zuten maiatzaren 9an Euskal Herria plazatxoan. Iaz, 115. urteurrena zuela-eta, Zestoako Bandak prestatu zuen ospakizun ekitaldien zerrendako lehendabizikoa izan zen Elizondora eginiko irteera. Egun hartan, elkartrukearen lehen atal hartatik urtebete pasata, Zestoan izan ziren Baztango musikariak, etxekoekin batera aritzeko.

Kontzertua iragartzeko, bi bandak kalerik kale ibili ziren lehenik, eta eguraldia lagun, Euskal Herria plazatxoan eskaini zuten emanaldia. Lehenengo Zestoako Bandak jo zuen, ondoren Elizondokoak, eta amaieran elkarrekin interpretatu zituzten Zestoan oso maiteak diren bi pieza: Ertxina eta Zestoa.



LURRA OINARRI, OSPAKIZUN ETA TOPAGUNE BILAKATU ZEN AMILLUBI

Udaberriko Festa ospatu zuten hilaren 16an Amillubin, eguraldiaga eskasa tarteko, udazkenekoa izan bazitekeen ere. Dena den, goizetik aurrera, askotariko ekintzak egin zituzten, Lurra oinarri, utopien bidean lelopean.

9:30ean zabaldu zituzten Amillubiko ateak, eta parte hartzaileei harrera egin ondoren, mahai inguruei ekin zieten: Lur bizia, herri bizia solasaldia izan da lehendabizi, eta Ametsek lurra hartzen dutenean izeneko mahai inguruarekin osatu dute goizeko egitaraua. Ondoren, bazkari agroekologikoan indarrak hartu, eta bazkalostean, kultur saioen txanda iritsi zen. Honako saio hauek izan ziren iluntzera bitartean: Pobresiak poesia errezitaldi musikatua, bertso saio elektronikoa, Babarrunba nahiz Berba labanakaz taldeen kontzertuak eta Txantona Garrote DJaren emanaldia.



AURTEN ERE JAN-EDANA EZ DA FALTA IZAN LAIAKEN XI. ARDO DASTAKETAN

Hamaikagarren aldiz antolatu du aurten Laiak dendak ardo dastaketa eta aurtengoari ere harrera beroa egin zieten zestoarrek. Beroa egiten bazuen ere, giro bikaina nagusitu da kiroldegiko aterpearen itzalpean. Aurtengoan, hamar upategiren eskaintza zabala izan dute aukeran bertaratuek: Aimarez, J. Guzmán Aldazabal, Rioja Bordón, Monteabellón, Mazuela, Aitaren, Albet i Noya, Tritium, García de Olano eta Ramírez de la Piscina.

Ardo baten eta bestearen artean, Exclusivas Mardu, Maisor, Basatxerri eta Floridako Merkatuak eskainitako pintxoak dastatzeko aukera ere izan zen. Aurten ere, Ustekabe txarangaren musikak girotu zuen zapatu eguerdiko jan-edana. Aurtengo ardo dastaketa Fundizio Fest egitarauaren barruan ospatu zuten.

AUZOAK FESTETAN



IBAÑARRIETAKO SANTAKUTZAK



ENDOIAKO ASENTZIOAK



ARROABEKO SANISIDROAK



AIZARNAKO PAZKO JAIAK

EREMU TENTSIONA- NATUA, ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BABESTEKO BIDEAN URRATSA



ZESTOA OFIZIALKI EREMU TENTSIONATU IZENDATU DUTE, ETA NEURRIAK INDARREAN DAUDE JADA APirilAREN 28TIK. 2023KO ETXEBIZITZA LEGEAK SORTU ZUEN FIGURA HORI, ETXEBIZITZA MERKATUAN TENTSION HANDIA DUTEN HERRIETAN ALOKAIUAREN PREZIOAK ARAUTU ETA BESTELAKO NEURRIAK APLIKATZEKO AUKERA EMANEZ.

Azken urteetan herriak izan duen bilakaerak eraman du egoera horretara: biztanleria %22,6 hazi da, baina etxebizitza eskaintza ez da erritmo berean handitu, eta, ondorioz, eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka nabarmendu egin da. Zestoan, etxebizitza eskatzaileen artean alokairua da aukerarik eskatuena: erregistratutako 184 eskaeretatik %71,6 alokairuko etxebizitzaren bila ari dira.

Diagnostikoak beste datu esanguratsu bat ere utzi du mahai gainean: herrian inor erroldatu gabeko 388 etxebizitza identifikatu dituzte, eta hutsik dauden etxeen tasa %10,1 da, Gipuzkoako batez bestekoa baino handiagoa. Testuinguru horretan, Zestoako Udalak 2023an izendapena eskatzeko prozesua abiatu zuen. Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu ostean, neurriak indarrean sartu ziren. Mikel Arregi alkatearekin hitz egin dugu, neurri horiek herritarrentzat zer eragin izango duten jakiteko.

ETXEBIZITZAREN EGOERA

“Azken urteetan Zestoak aldaketa handia bizi izan du. Inguruko herrietan etxebizitza aukerarik aurkitu ez duten pertsona askok hona jotzen dute bizitzera, eta aldi berean herriko gazte askok etxebizitza falta dela-eta Azpeitia edo Azkoitira jo behar izan dute.”

Herrian etxebizitza huts kopuru handia dagoen arren, alokairuko eskaintza oso urria da eta jabetza publikoko etxebizitzarik ez dago. Zestoan alokairua, oraindik, kostako herrietan baino merkeagoa bada ere, azken urteetan asko ari da garestitzen.

“Bestalde, Zestoa errenta ertain eta baxuko pertsonen harrera-herria bihurtu da eta, aldiz, kostaldeko ondoko herriek - eta maila batean Azpeitiak ere - azken urteetan errenta altuagoko pertsonak hartu dituzte. Lurralde ikuspegi batetik, segregazioa ekidin eta gizarte orekarako neurri orokorrako batzuk hartzen ez badira, beste 25 urtean aldaketa soziologiko ikaragarriak nozituko ditugu, eta hor Zestoak ondoko herriek baino zaurgarritasun handiagoa dauka”.

EKINTZA PLANA

Planak hiru ildo nagusi ditu: alokairuen prezioaren erregularizazioa eta mugatzea, etxe hutsen merkaturatzea neurri fiskalen bidez, eta etxebizitza publiko berriak eraikitzea. Horren baitan, Kaleokerreko eta postetxea zegoen orubeetan jabetza publikoko 22 etxebizitza eraikiko dira. Nahiz eta horretarako aurretik Hiri Antolaketarako Plan Orokorra (HAPO) behin betiko onartu beharko den.

ALOKAIUEN PREZIOA MUGATUTA

“Dagoeneko tentsio eremu izendapena jasotzen duten herriek alokairu indize bat ezarria daukate; Eusko Jaurlaritzak web gune bat argitaratu du erreferentziazko indize horiekin. Bertan ikus daiteke Zestoari dagokion informazioa, eta baita etxebizitza bakoitzaren alokairu indizea kalkulatzeko tresna ere; aurrerantzean alokairu prezioek indize hori errespetatu beharko dute”.

Alkateak esan digunez, azken 5 urteetan alokairura bideratu gabe egon diren etxebizitzei eta alokatuta dauden 5 etxebizitza baino gehiagoko etxe-jabe handiei aplikatuko zaie indizea, neurriak berehala aplikatu beharko dituzte. Gainontzekoek, berriz, kontratua amaitu arte orain arteko baldintzekin jarraitzeko aukera izango dute, baina kontratua berritzean ezingo dute alokairu prezioa igo.

“Gainera, maizterrak kontratua hiru urtez luzatzeko eskubidea izango du, beti ere baldintza batzuk betetzen badira, eta, lehen aipatu bezala, kontratu berrian alokairu prezioa ezingo da igo”.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak erregimen zigortzailea ere ezarri du neurri horiek betetzen ez dituztenentzat. Udalak azaldu duenez, ikuskaritza zorrotzak aurreikusten dira. Horrenbestez, ezarritako mugak gainditzen dituzten etxejabeek edo araudia betetzen ez dutenek isunak jaso ahal izango dituzte.



SANTAKUTZAK 2026

26/27 ikasturteko **aurrematrikula**

Orain!

aek
euskara praktikoa

EUSKARA-IKASTAROAK

20tik
aurrera

APIRILA

21 22 23 24 25 26

27 28 29 30



1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29						

30era
arte

EKAINA

ABANTAILAK:

- Ikasturte honetako **prezio bera (*)**.
- Ordainketa malguagoa.
- Lehenetasuna taldeak eratzeko orduan.

Apirilaren 20tik ekainaren 30era arte, www.aek.eus webgunean edo AEKren edozein euskaltegitan.

(*) HABE edo Euskarabidearen aparteko dirulaguntza duten ikastaroen kasuan izan ezik.

670 420 048 · zestoa@aec.eus · www.aek.eus

Egin
aurrematrikula





Antzerkia, topatzeko aitzakia

Eskualdeko eskola txikien antzerki-topaketak egin zituzten maiatzaren 15ean Arroabean, eta han izan ginen ikusmiran, haurrengandik zer ikasiko.

Auzo askoko herria dugu gurea, eta aspaldi ikasi genuen txiki izateak ez duela dena desabantaila, are gutxiago txiki gehiagoko sare indartsua izanik.

Herri txikietan, kinta bakoitzean, haur gutxi izaten dira; horregatik, eskola txikientzat garrantzitsua da, aitzakia borobilak tarteko, hainbat herritako adin bereko haurrak urtean zehar elkar-teea. Horrela, institutura joateko garaia iristen denerako, ikasleek izaten dute gertuko herrian adin berekoren baten babes.

Elkarrekin joaten dira, esaterako, Zumaiko institutura, Aizarnazabal, Oikia eta Arroabeko ikasleak, edota Azpeitira, herrigunekoekin batera, Aizarna eta Errezilgo haurrak.

Eskolak elkartzeko arrazoia ekonomikoa ere izaten da batzuetan. Ikaskide gutxirekin irteeretarako autobusa osatu ezin, eta elkarrekin egiten dituzte ibilaldiak.

Ildo beretik egin berri dituzte Tolosan kirol-topaketak Gipuzkoako 27 eskola txikitako haurrek, eta eskualde mailan ere elkar-tzen dira.

Antzerkia topaleku

Asmo berarekin elkartu ziren maiatzaren 15ean Arroabean Antzerki Topaketa egiteko.

Aizarna eta Arroako eskola txikiez gain, Aizarnazabal, Oikia eta Angiozarkoak ere elkartu ziren Arroabean.



Deban bizi den ataundar batek, Lukax Dorronsorok, dozena bat urtetik gora egin zituen irakasle Aizarnako eskolan. Debako Goaz antzerki taldeko zuzendaria zen bera, eta biziki maite zuen antzerkia. Arroabean elkartutako irakasle askoren ustez, huraxe izan zen topaketa hauen aurreneko hazia jarri zue-na. Hasiera haietan, Aizarnazabalen egiten ziren urte guztian zehar bakoitzak bere eskolan landutako antzerkien emanaldiak; izan ere, Aizarnazabalek zituen hainbeste haur hartzeko azpiegiturarik egokienak. Konfinamenduaz geroztik, eskolek txandaka antolatzen dute, eta Arroako eskolaren txanda izan da aurren.

Modu horretan, topaketa antolatzeko lanaren ardurara aldatzen doa, eta haurrek ere beste eskola eta auzo batzuk ezagutzeko aukera izaten dute.

Urte osoan zehar joaten dira emanaldia prestatzen. Aurrenekoz, topaketa egiten dute emanaldia, gaintzeko eskolek ikusteko, eta ikasturte amaieran bakoitzak bere herrian ere egiten du, lagun eta senitartekoentzat. Aizarnarrek aitortu digutenez, berriak beste emanaldi bat ere egiten dute Deban, Lukax bizi den herrian.



Aurtengo topaketa

Bost eskoletako haur guztiak elkartu ziren Arroan, hasi bi urtetik eta hamabi urtera artekoak; 205 haur guztira. Eguraldi txarra tarteko, moldaketak egin behar izan zituzten Arroako antolatzaileek. Haur Hezkuntzako haurrentzat eskolan moldatu zituzten dinamikak, eta Lehen Hezkuntzakoek, berriz, elizan egin zituzten antzerki emanaldiak.

Arroabekoak izan ziren aurrenak, eta Oikia eta Aizarnazabalek eskaini zuten jarraian antzerkia. Hamaietakoaren atsedenaldiaren ondoren, Aizarna eta Angiozarren txanda izan zen. Egun osoko egitaraua izan zen. Arratsaldean, herri kirolak egin zituzten, eta zirkuko materialarekin ere aritu ziren. Aurtentzen, Zizurkilen tokatzen da eskola txikien jaia, eta murala egin zuten hori gaitzat hartuta; baita taldeko argazkia atera ere. Arroarentzat erronka handia izan da topaketa prestatzea. Izan ere, eraikuntza eta azpiegitura aldetik aukera zabala dute, baina, eguraldi txarra egin zuenez, Sakulupe parkea ere ez zegoen erabilgarri, eta planak moldatu behar izan zituzten haurrak espazio itxian edukitzeko.


Uste baino eguraldi politagoa egin zuen azkenerako, eta denek gozatu zuten, barruan nahiz kanpoan. Haurrei galdetu beharrik ez zegoen gustura zebiltzala ohartzeko, urduritasunak eta erronkak alde batera utzita, ez baita egunerokoa beste pertsona bat izateko aukera.

jone bergara



Nire inguruko gaztetxoek geroz eta gehiago hitz egiten dute erdaraz. Horrek pena handia ematen dit eta asko kezkatzen nau. Beraz, nire kasuan, behintzat, oso kontziente naizela esango nuke.

Lurdes Arrizabalaga
65 urte



Neurri batean jakitun gara, baina ez dakit zenbateraino. Azken urteotan euskararen erabilerak izan duen beharakada ikusita, hemendik urte batzuetara beherakada geroz eta handiagoa izango da. Nik uste, benetako kolpea iritsi arte ez garela guztiz konturatuko euskara galtzeko arriskuan gaudela.

Maialen Larrarte
34 urte



Ez. Beno, agian jakitun gara, baina ez dugu ezer egiten horren aurrean. Uste dut euskara oso oso egoera txarrean ikusi arte ez ditugula begiak irekiko. Gainera, kanpotik etortzen diren batzuek ere ez dute euskara ikasteko inolako ahaleginik egiten, eta horrek ere eragina dauka.

Carlos Narciso
38 urte




Azken finean, kultura geroz eta globalagoa bihurtzen ari da, baita kultura kapitalista ere, eta horren ondorioz, martxa honetan hizkuntza eta kultura txikiak desagertzera kondenatuta daudela iruditzen zait.

Joseba Aramendi
25 urte

Horrela JarraitukoZ Gero, Zestoak Euskararen Arnasgune Izateari Utziko Dio Hamar Urte Barru. Jakitun Al Gara?

- bai, baina ez dugu ezer egiten horren aurrean
- bai, argi ikusten da joera hori
- ez dut uste egoera horren larria denik
- ez



Erantzuleak guztira: 82



Arroabeko San Isidro kaleko jolas parkeko zorua oso egoera txarrean dago. Kautxuzko lurra puskatuta dago, hainbat gunetan desegiten ari da eta zati urdinek erabiltzaileen arropa tindatzen dute.

Autobideko ordainleku ondoko autobus geltokitik Sansinenea industrialderaino oinezkoentzako pasabidea ireki dute.

maiatza

29 OSTIRALA
Zirriborro

Jazz Band taldearen kontzertua, Portaleko terrazan,

17:00etan. * Ipuin kontaketa lau urtetik gorakoentzat. Arroabeko Elkargunean, 17:00etan.

30 LARUNBATA

Arteagako festa eguna. Goizean, lehenik auzo igoera Ertxiña mendira, ondoren, Ertxiña mendira erlojupeko igoera. Ondoren, "LagunArtean" ekitaldia eta sari banaketa. Ondoren, Aizpea Aristiren kontzertu akustikoa. Eguerdian, auzo bazkaria. Arratsaldean, haurrentzako jolasak, auzo poteoa, jolasak eta Xabierren museoari bisita. Gauean, Arrixku taldea eta DJ Olber.

ekaina

03 ASTEAZKENA

Kultur azpiegituren inguruko bilera Jubilatuen tabernan, 19:00etan. * Argiolarren autokontsumoari buruzko bilera Arroabeko Elkargunean, 18:00etan.

04 OSTEGUNA

Pantailen arazoaren inguruko solasaldia Gurutze Lopetegi eta Itxaso Martirekin, eskolako ekitaldi aretoan, 18:00etan. Aurrez izena eman beharko da.

05 OSTIRALA

Agirok antolatuta, Ekain gailurrera igoera nerabeekin.

06 LARUNBATA

Jon Garmendiaren eta Xabi Solanoren "Bidasoatik harago" kontzertua San Lorenteko ermitan, 18:00etan. Sarrerak Turismo Bulegoan. * Iraetako tren txikia irekita.

07 LARUNBATA

Itxaropena dantza taldearen emanaldia Laranjadin, 18:30ean.

11 OSTEGUNA

Amets sareak antolatuta, "Azalerako ipuinak" Saroa Bikendirekin. 17:00etatik aurrera, liburutegian (2024-2025eko haurrentzat).

13 LARUNBATA

Zestoako XXIV. Ibilaldi Neurtua. Ibilbide luzea: 26,3 km, irteera 7:00etan. Ibilbide laburra: 18,7 km, irteera 8:00etan. Izen-ematea herrikrosa.eus webgunean. * Espabilau eguna Lasaoen. Arratsaldean, bingo musikatua, umeen jolasak eta gazteen pilota partidak. Gauean, auzo afaria eta auzoko gazteak DJ lanetan.

14 IGANDEA

Jubilatuen irteera Hondarririba.

15 ASTELEHENA

Ertxiña Musika Eskolako emanaldia emanaldia Kultur Etxeko aretoan.

16 ASTEGARTEA

Ertxiña Musika Eskolako ikasturte amaierako emanaldia.

18 OSTEGUNA

Zestoako Osasuntsuren irteera berezia

19 OSTIRALA

22:30ean Zestoako Musika Bandaren soinu banden kontzertua Euskal Herria plazan. * AEKren ikasturte amaiera.

20 LARUNBATA

Kalakan taldearen kontzertua Gurutzeaga pilotalekuan. * Iraetako tren txikiaren urteko topaketak.

23 ASTEGARTEA

San Joan bezperako sua

24 GIK 28ra


Zestoako Antzerki Astea. Sarreraren salmenta ekainaren 2tik aurrera.

Bizitza ederragoa da landarez inguratuta

Zatoz gure landare bilduma berria ezagutzera!



KIMUBAT
— GARDEN



943 15 00 85 | www.kimubat.eus | Urrestilla bidea, Azpeitia



Taxi Zesto



Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 | Portaleka kalea 1, Behea B • 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
943 147 019
sjzuzendaritza@gmail.com



FERREGI
BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi | Isidro Fernandez
695 721 015 | 690 108 996

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
denda
Tlf 943 147 015

Pakete Okua
943 148 428

EROSKI city
zurekin
943 062 861

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110

mairi
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Izarraltz
Kudeaketa informatikoa

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO GAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA